


## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2018/06/05 )</b>  Hurrengo saioa: 2018/06/.....	Ekaineko plangintza	Ekainak 19(zehaztu gabe): Gazteen musika kontzertua aurreikusten da Alegin parkearen inaugurazioarekin lotuz.	Data konfirmatu
		Ekainak 23 San Juan bezpera: Lehengo urteko eredua jarraitzea adostu da, bertan dantzak, afaltzeko parrillada, kanpai jotzea, sua...izango direlarik	- Ostatukoekin afari kontuak adostu. Gazteekin dantza entsaioa adostu - Narrasperekin egon suarentzat ondarra ekartzeko
		Ekainak 25: Argindarraren fakturak aztertzeko tailerra egingo da Udaletxeko udal aretoan.	
		Ekainak 26: Irakurle taldearen solasaldia egingo da udal aretoan Arantxa Urretabizkaiaren "3 Mariak" liburua izango delarik ardatz	Liburua irakurri
	Adinez nagusi direnentzat ariketa fisiko-psiko-emozionala	Ekainak 28/Uztailak5: BBB bihotz,birika, bizkortze lehen sorospen ikastaroa burutuko da	
		Ekainak 30ean egingo den herri batzarra erabiliko da ekimena aurkezteko. Ondoren, Uztailaren 4a interesatuekin elkartzeko data egokia dela aurreikusi da .	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/ 06/12)</b>  Hurrengo saioa:	Ekaineko plangintza	- Ekainerako antolatutako ekintza desberdinen zehaztasunak jaso dira eta jakinarazpena osatu da: gazteen kontzertua, parkeko inaugurazioa, formazio saioak, liburuaren inguruko solasaldia, San Juan bezpera, Herri Batzarra,...	- Kontzerturako kartela prestatu eta Argitu formazioko kartela moldatu - Informazioa herrian zabaldu
	Euskara klaseak	- Interesa azaldu dutenekin bilera egitea adostu da (larunbat eguerdian) beraien artean ordutegi komun bat adosteko asmoarekin	- Klase hauek emango dituen herriko norbait topatu



2018/06/26)	Herri Batzarra	- Herri Batzarrean tratatuko diren gaien zerrenda prestatu dugu: azkeneko batzarretik orain artekoak, Leader proiektua, herriko ibilbideak eta informazio panelak, hondakinen gaia, Euskaraldia, adinez nagusi direnentzat ariketa fisiko-psiko-emozionala,...	- Prestaketarekin jarraitu
-------------	----------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2018/06/13</b> Hurrengo saioa: 2018/06/27)	Alegiko obrak	<ul style="list-style-type: none"><li>- Arotzak elizatariko eserlekuan ohola jartzeko neurriak hartu ditu. Parkeko jarlekuan ere beste ohol bat jarriko da bizkar parean.</li><li>- Parkean sortzen zen putzua bideratzeko erreten bat atera eta errejilla batekin tapatu da (frontoiko euri-uren arketara bideratu dira)</li><li>- Komunetako ateen heldulekurik ez dute, "uñero"ak bakarrik. Barrutik eta kanpotik giltzaz ireki eta isten direnez, barrualdetik gantxo bat jarriko da.</li><li>- Bentilaziorako sabaian errejilla marroiak jarriko dira, gapirioen tartetan. Ate azpian ere zirrikitu estu bat geratzen da.</li><li>- Aurreikusita zeuden lau farolak behar adinako argia ematen dutenez, apaizetxe ondoan utzita dagoena jaso egingo da.</li><li>- Elkartean paretan dagoen argindar kaxa itxita izatea komeni denez, giltza bat elkartean gordetzea aipatzen da.</li><li>- Frontoiaren atzealdeko belardiaren sarreran hesia jarriko da (hesolak terreno zaleak eta sarea Udalak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Mahaia edota bankuak, ariketa fisikoa egiteko tramankuluak,... non kokatu erabaki.</li><li>- Elkarteko paretan margotu.</li><li>- Parkea zeharkatzen duen bidean (estu-une bat gelditu den tokian) apur bat nola zabaldu daitekeen aztertu.</li><li>- Astelehena, ekainak 18, hesia jarri.</li></ul>
	Leader diru-laguntzak	- Ekainaren 29ra arteko tartea dago. Goimeneko teknikariarekin egon ondoren, memoria nola egin beharko genukeen aztertzen aritu gara. Udaletxeko obra aurkeztuko da: irisgarritasuna, barruko distribuzioa eta teilatua, ganbararen obra barne.	- Proiektua bere osotasunean garatu eta aurkeztu
	Udal langilearen orduak (Narraspe)	Udal langile honek 2017an Itsasorako zuen ordu kopurutik gora sartu zituenez eta aurtengo aurreikuspenetan ere antzera gertatuko dela susmatzen dugunez, epealdi labur baterako herriko norbait kontratatzeke aukera aztertzen aritu gara.	- Kontratatuko den langilearen ordu kopurua eta zereginak zehaztu